



Dasta Saizar Euskal Sagardo botila gure Sagardotegian!



SAIZAR

Sagardoa · Sidra Natural

SAGARDOTEGIKO ERRESERBAK
943 373 995

BODEGA
Kale-zahar auzoa, 39 · Apdo. 68
20.170 USURBIL (Gipuzkoa)
+34 943 36 45 97
sidreria@sldrassaizar.com

www.sldrassaizar.com



VIII ● Botilako sagardoa

Asteazkena, 2019ko maiatzaren 14a



Frankfurteko Cider World azokako sari-banaketa ekitaldia. SAGARDOAREN LURRALDEA

SARIAK, KALITATEA ETA BERRIKUNTZA

Euskal Herrian egiten den sagardoa gero eta estimatuagoa da mundu osoan. Azken hilabeteetan, hainbat sagardotegi eta sagardoari lotutako egitasmo sarituak izan dira Europan eta Amerikan

Azken urteotan Euskal Herriko zenbait sagardotegi sariak eman dizkiete munduko hainbat herritan, eta sagardoari lotutako hainbat egitasmo ere bai. Izan ere, Euskal Herrian egiten den sagardoa gero eta eza-gunagoa eta estimatuagoa da mundu osoan, eta bere kalitatea eta bere inguruan martxan jarri diren egitasmo berritzaileak go-raipatuak izan dira sarritan.

Esaterako, Alemanian, aurtengo Frankfurteko Cider World azokan, euskal sagardogileek hainbat sari jaso zituzten. Zehazki, bost domina eman zizkieten, hainbat kategoriatan, Zapiain, Petritegi eta Bereziartua sagardotegietan ekoiztutako sagardoei. Zapiain sagardotegiak urrezko bi domina jaso zituen Bizi Goxo eta Euskal Sagardoa Premium produktuengatik, eta ohorezko domina bat Gorenak sagardo naturalarengatik; Petritegi sagardotegiak, ohorezko domina bat sagardo apardunarengatik; eta Be-

reziartua sagardotegiak, ohorezko domina bat sagardo natural ekologikoarengatik. Martxoaren 30ean banatu zituzten sariak.

Halaber, Bereziartua sagardotegiak ekoizten duen sagardo naturalari zilarrezko domina bat eman zioten Ameriketako Estatu Batuetako lehiaketa ospetsu batean iazko maiatzean, Michigango laku handien nazioarteko sagardo lehiaketan (GLINTCAP). Bereziartua sagardotegia azken lau urteetan saritua izan da lehiaketa horretan.

Aipatu sagardotegiez gain, Euskal Herriko beste sagardotegi batzuk sarituak izan dira azken urteotan, han eta hemen, eta egiten dituzten sagardoen kalitatea txalotua izan da, aipamenen bidez. Besteak beste, Zelaia, Gaztañaga, Itxas Buru, Zabala, Gurutzeta, Begiristain, Isastegi, Iparragirre eta Saizar sagardotegiak.

TXOTX KANPAINA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Turismo Departamentuak International Travel & Tourism Awards lehiaketako helmuga gastrono-

miko hoberenaren ataleko irabazlearen saria jaso du Txotx Kanpainaren erritu gastronomikoa kategorian. Azaroaren 8an izan ziren sariak banatzeko ekitaldia. Lurraldea elkartearen, Gipuzkoako Sagardogileen Elkartarenekin batera, hemendi Donostialdea Bidasoako Landa Garapenerako Elkartarekin batera, laguntza izan du Gipuzkoako Aldundiko Turismo Departamentuak.

Kanpainan benetako sagardotegi bat irudikatu zuten, eta saria penerako elementu berritzaileak erabili ziren, Cider truck berritzaileak Euskal Herrian, Galizian, Britainian, Britainian eta Frantziako lurraldeetan, Britainian eta Frantziako lurraldeetan har ibili ziren 2017an. Kanpainaren helburua zen turismoaren bidez Gipuzkoako sagardotegiaren, eta, horretarako, sagardotegiaren kultura sustatu eta atzerrian, haren balioa azpimarratzea.

Alde batetik, Txotx Kanpainaren erritu gastronomikoa kategorian sagardoaren ospea indartzea, eta, bestetik, eskaintza gastronomikoa bultzatu zuten.